

ASTEARTEA

2018/07/17
6. urtea, 907. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Gaur egingo du Euskaraldiak geldialdia Tolosan, hiru egunerako

Irati Labaien tolosarra antolatzaile taldean aritu da: «Abenturak AEBtako Boisen hartu zuen forma» // 3

Gipuzkoa Ogi Berrik emaitza bikainak Tolosako V. Sari Nagusian

Estebez Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun, Tolosako kaleetan // 7

Historiaurreko Euskal Herriko lehen hiri planoak izan daitezkeena aurkitu da Anoetako Basagainen

Xabier Peñalver arkeologoak eta bere lantaldeak iazko indusketetan aurkitu zuten harlauza; Basagainen 25 urtez ari dira indusketa lanetan, Aldundiak eta Anoetako Udalak lagunduta; udalak salatu du inork ez diola azken aurkikuntzaren berri eman // 5



JOSU ARTUTXA DORRONSORO

ALEGIA EGUN NAGUSIA, HAURRENA

Karmen Eguna izan zen atzokoa eta txintzarriek atzo arte luzatu zituzten herriko festak; azken egunean haurrek hartu dute protagonismoa, eszenatokia euren bihurtu eta play-back saioa eskainiz // 4

Eraso sexistak salatzeke eta biktimei babesa emateko elkarretaratzea, Ibarran

Neska batek bortxatua izan zela esan zien herritar batzuei, eta erantzun bezala egin zuten deialdia; ostegunean, 20:00etan berriro batzar irekia izango da Ibarrako plazan // 2

zozketak

Atarikideentzat **disco bat** daukagu

DELOREAN
taldearen
'Mikel Laboa' diskoa

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo www.ataria.eus

Proiektu eta inbertsio sorta garrantzitsua onartu du udalak

Amasa-Villabonako udal gobernuak kreditu aldaketak egin ditu eta eragiketa horrekin ateratako diruarekin hainbat proiektu gauzatzea erabaki dute

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako udal gobernuak proposatuta, 888.400 euroko inbertsio sorta onartu du Ogasun batzordeak.

Besteak beste, Errebote Plazako erreforma integrala, Amasako frontoiko birmoldaketa eta Oriamendi auzoko udal jabetzako etxebizitzaren egokitzapena onartu dituzte. Horrez gain, Malakar aisialdi taldearentzat (6.300 euro) eta Tolosaldeko emakumezkoen arraun traineruarentzat diru laguntzak (3.000 euro) onartu dituzte.

ERREBOTE PLAZA

Kredituen aldaketak egin ditu udal gobernuak eta hori dela eta egin ahal izango dituzte hainbat proiektu. Zehazki Errebote plazako erreforma osoa egin ahal izango dute, 402.100 euroekin. Zolaketa aldaketa egingo dute, argiteria berria ipini, hormen eta udaletxearen pintaketak egin eta plazari izena ematen dion errebote jokoari garrantzi berezia emango diote.

Era berean, Amasako pilotalekuaren birmoldaketa egingo dute, 253.400 euro gastatuz. Teilatuko erreforma osoa egingo dute, aldamenetako hormetako arrakala garrantzitsuen deuseztatu, hustubideen bideraketa, larrialdietarako irteeren

hobekuntza eta mugimendu murriztuko pertsonentzako guztiz irisgarria izango den bainugela berri bat izango duen aldagelaren berrikuntza egingo dituzte.

ORIAMENDI AUZOA

Oriamendi auzoko etxebizitzaren egokitzapena ere egingo dute, 80.000 euro bideratuz. Fleming eskola publikoan erreformak ere egingo dituzte. Ohiko 85.000 euroko aurrekontuari 19.500 euro batu dizkiotelarik. Aurreikusitako Arroa eta Arratzain eraikuntzetako lanei, beste lan batzuk gehitu ahal izango dizkiote, «udal honek Amasa-Villabonako eskola publikoarekin duen konpromisoa indartuz».

Obrako brigadentzako bi ibilgailu berrien erosketa ere egin ahal izango dute (52.500 euro). GLP ibilgailu hibrido eta SACEM zenaren pabiloiko udal instalakuntzetan kargatzeko puntua izango lukeen beste elektriko bat erosteko aukera aztertzen ari dira. Bukatzeko kiroldegiko kutxatilen konponketa egitea eta uraren kalitatea bermatuko duen filtro berria ipintzea adostu dute (10.300 euro).

IRAKURRI OSORIK

Albiste osorik webgunean: www.ataria.eus/amasa-villabona



Bortxaketa baten kontaketa jaso ostean erabaki zuten herritar batzuek elkarretaratzerako deia egitea. R. CALVO

Eraso sexisten kontrako elkarretaratzea, Ibarra

Neska batek bortxatua izan zela esan zien herritar batzuei, eta erantzun bezala egin zuten deialdia; eraso sexistak salatu eta horien biktima guztiei babesa azaldu diete

Rebeka Calvo Ibarra

Herritar talde batek deituta elkarretaratzea egin zuten igandean Ibarra plaza. Neska batek egindako kontakizunaren harira erabaki zuten deialdia luzatzea. «Duela pare bat egun, bere baitan denbora gehiagorik mantendu ezin izan zuen neska batek kontatu zuen denok ezagutzen dugun ibartar batek bortxatu egin zuela», esan zuten. Neskaren ausardia nabarmendu zuten eta gehitu mutil horrek eragindako beste bi erasoren berri ere izan dutela, eta sare sozialetan neskak jazartzen aritu dela ere jakin dutela. «Sare sozialetatik neska bat baino gehiago izan da akosatua pertsona honen partetik, bere zakilaren argazkiak bidaliz zein argazkiak bidaltzeko presioa eginaz». Azken egunetan herrian zurrumurruak egon direla esan zuten eta horregatik «zurrumurruez harago» iristen joan zaien informazioa kontrastatu dutela esan zuten, «horregatik deitu dugu elkarretaratze hau, segurtasun osoz esan dezakegulako bortxatzaile batez hitz egiten ari garela». Bortxa-

ketaren berri eman duen neskak ez zuen salaketa jarri eta horren aurrean esan zuten salaketarik jarri ez izana ez dela aitzakia «bortxatzailea babesteko». «Horrelako zerbait jasan ez dugunok ezin dugu imajinatu ere egin zer suposatzen duen honek, zer nolako sentimendu eta sufrimendu sorrarazten duen honek. Nola izan gaitezke horren aho beroak, salaketa sartu ez izana leporatu eta horrela zeharka bada ere bortxatzailea babesteko? Hemendik noski, salatzeraz animatzen ditugu biktimak, baina aurrea eta, batez ere, guztia ginetik, uste dugu euren osasun eta egoera emozionala zaindu eta osatzea dela onena». Horren harira Manada edo Altsasuko auziak gogoratu zituzten: «Adibide hauek ez al ditugu nahikoak epaile eta epaiketen partzialtasunaz konturatzeko?».

«Bestalde, ez dago sobera esatea -jarraitu zuten- ez daukala inork bortxatzaile baten aita, ama, anaia, lehengusu, iloba, ezagun edo lagun izatearen errurik, eta gainera, ulertzen dugun bezala, oso egoera zailen daude horietako asko. Hala ere, bortxatzailearekin izan dezakegun harremanaz harago, guztion egin beharra da jarrera hau salatu eta bortxatzailea markatzeaz gainera, horrelako gertaerak berriz eman ez daitezen, gure eskuetan dagoena egitea. Hau egin ordez, dena delako arrazoiak medio,

bortxatzailea babestu edo bera errugabetzeko egiten duen oro, bortxatzailea bezalaxe gure etsai politikoa izango da».

Eraso sexisten aurrean emakumeen autodefentsaz harago, gizartearen eraldaketa «erradikala» aldarrikatu zuten: «Orain guri dagokigu honi erantzutea, gizartearen eraldaketa erradikala, hau da, iraultza burutu lezakeen subjektu bakarrari, langile klaseari, hain zuzen ere. Gure jendearen aurkako eraso oro kolektiboki erantzun beharra daukagu, autodefentsaz». Bukatzeko esan zuten elkarretaratzea presio sozial moduan deitu zutela eta horrekin jarraitu behar dela «berriz ere horrelako ezer egin ez dezan eta potentzialki bortxatzailea izan daitekeen oro beldurtzeko». «Ez diezaiogun tabernetan, gaztetxean, kiroldegian eta abar sartzen utzi, kaletik gure mespretxu begiradak sentitu ditzala, egunerokotasunean markatuta sentitu dadila, ez diezaiola inork kaletik kasurik egin, balikoietatik ura bota diezaiozun... Mila modutara egin dezakegu, baina finean, gure gorroto eta haserre guztia sentitu dezala, berriz horrelako zerbait egitea okurritu ere ez zaiolako egingo horrela. Gainera egon daitezkeen bortxatzaile potentzialak beldurtuko ditugu honela, gure jendearekin sartzen badira galtzeko asko dutela erakutsiko diegu».

Ostegunean 20:00etan plazan, batzar irekia egingo dute.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Euskal Herrian zehar hilabeteko ibilbidea ari dira egiten lurralde osoko 110 gazte; euskararen erabilera sustatzea, gazteak saretzea edota herriaren ezagutza bultzatzea dira Euskarabenturaren helburuak.

Euskara ahoan eta ibili gurean

Iñigo Terradillos

Euskara ardatz hartuta oporraldi berezia egiten ari dira 16-17 urteko 110 neska-mutil. Uztailearen 1ean ekin zioten Mauletik Euskarabenturari, eta Euskal Herria zeharkatuz 483 kilometro egin ostean, Getxora iritsiko dira uztailearen 31n. Done Jakue bideari men eginez, gehientsuenak oinez, eta tarteka garraio publikoa erabiliz ari dira egiten, eta parte hartzen ari diren gazteen eta begiraleen artean eskualdekoak ere badira. Gaur iritsiko da ekimena Tolosaldera, eta bi egunetan zehar hamaika jardura egingo dituzte.

Parte hartzen ari diren gazte tolosarrek ekimenaren parte izateko aukera edukitzea «eskertzekoa» dela errepikatzen dute. «Oso gustura» daudela diote,



Abenturaz gozatzen ari diren eskualdeko parte hartzaile eta begiraleak. ATARIA

«ederki» ari direla igarotzen egunak, jende ugari ezagutzen eta lagun berriak egiten ari direla. Horrekin batera, Euskarabenturak euskaraz hitz egiteko modu desberdinak entzuteko aukera ematen diela ere nabarmentzen dute.

Begirale edo beraiek dioten moduan xerpek gazteen zainketaz arduratzeaz gain, ibilbidearen gidari lana ari dira egiten. Leire Bengoetxea eta Ioritz Segurola tolosarrak ari dira zeregin horretan. «Proiektu polita» iruditut zitzaielako animatu ziren, eta gazteen moduan «pozik» daude ekimenaren parte izateaz eta bertako «giro ederra» azpimarratu dute. Batzuek zein besteek diote Tolosatik pasatzeak «ilusio berezia» egiten diela.

TOLOSA, GERALEKU

Bada, gaur egingo du ekimenak geldialdia Tolosan. Trenez iritsiko da taldea, eta Alde Zaharretik

bisita gidatu bat egin ostean, Zerkausion elkartuko dira afaltzeko. Bihar, berriz, goizean Leidor zinemara joango dira, Mattin Zeberioaren *Zortzi Yukon* dokumentala ikustera. Zeberio bera egongo da proiektzioa aurkezten. Interesgarri ikusi dute antolakuntzatik bera egotea, «oso gazte zela egin zuelako», eta gazteak «identifikatuta» sentituko direla uste dute. Arratsaldean, sormen lanaren lanketa egingo dute artista desberdinekin, eta Gipuzkoako egoera soziolinguistikoz ariko zaie Kike Amonarriz. Ekimenak burutu ahal izateko Tolosako Udaletik zein Laskorain ikastolatik eskainitako laguntza eskertu dute. Hain justu, azken honetako ganberan egingo dute lo gazteek.

Eskualdeko sartu-irtena gauzatuta, etzi goizean goiz utziko dute Tolosa, Andoinareko bidea hartu eta *Berria* egunkaria bisitatzeko.



«Zazpi lurraldeetatik eta zortzigarren probintzietatik ere ordezkari zara du»

IRATILABAIEN ANTOLATZAILEA

I. Terradillos Tolosa

Tolosarrak hilabeteak eman ditu Euskarabentura errealitate bilakatzeko antolaketa lanetan. Lan kontuengatik ezin izan du orain arte abentura berriaren barruan murgildu, baina, ekimenaren azken txanpan taldera batzeko «gogotsu» dago.

Nondik sortu da Euskarabentura?

Duela 2-3 urte sortu zen ideia. Nire lagun talde bat bildu zen Ameriketako Estatu Batuetako Boisen egiten den Euskal Jaian, eta bertan hasi zen ideia forma hartzen. Ruta Quetzal moduko bat Euskal Herrian egitea eta euskaraz izatea, horixe izan zen abiapuntua. Horrela, pasa den urte hasieran taldetxo handiago bat elkartu ginen, eta ideia lantzen hasi. Ate ugari jo ditugu, diru laguntza batzuk ere jaso ditugu, eta pasa den urte amaieran ekimena aurkeztu genuen.

Zenbat aritu zarete hau guztia antolatzen?

Antolaketa boluntarioki aritu garen taldea ikaragarria da. Zortzi hasi ginen eta hamar izan gara azken urte eta erdian lanean. Aipatu, baita ere, gazte hauekin abenturan parte hartzen ari den begiraleen taldea ere, lan oso polita egiten ari baitira, eta eskertzekoa da. Aipatu behar da parte hartzeko aukera duten gazteentzat doako abentura ari dela izaten, eta hori aipaturiko diru laguntzei esker, nahiz babesa eta ekarpena eman duten eragile eta taldeei esker izan dela. Horiek

gabe ezingo litzateke ekimen hau burutu, beraz, oso eskertuta gaude.

Zer helburu du?

Euskarabentura espedizioaren helburuak anitzak dira: gazteen artean euskararen erabilera sustatzea, gazte euskaldunen sarea sortzea, Euskal Herriaren ezagutza sustatzea historia, kultura, geografia edota gizateriaren ondareak, eta baita gure us-tetan balore osasuntsuak direnak sustatzea ere, hala nola, ingurumenarekiko errespetua, turismo arduratsua, genero berdintasuna eta elkarbizitza.

110 gazte ari dira parte hartzen. Nolatan izan dute aukera horretarako?

16-17 urteko gazteei gonbidapena luzatu zitzaion ekimenean parte hartzeko. Horretarako, lan bat bidali beharra zegoen. *Euskara eta zure herria*, *Euskara eta emakumea* eta *Euskara eta itsasoa* ziren aukeratu beharreko gaiak, eta lanak idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak izan zitezkeen. Ekimen berria izanik, ez genekien nolako erantzuna izango zuen eta zenbat lan jasoko genituen, eta horregatik zailantza ere izan dugu aurrera ate-

ra ahalko zen, baina, azkenean 140 lan iritsi zitzaizkigun. Eusko Ikaskuntzaren laguntza izan dugu horien ebaluaketa egiten, eta 110 izan dira aukeratuak.

Euskal Herriko txoko guztietako ordezkari zara du ekimenak.

Bai. 72 neska eta 38 mutil dira dena. Bizkaitarrak 48 dira, 23 nafar, 20 gipuzkoar, 14 arabar eta Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurditik bana. Euskal diasporatik, Washingtonetik eta Patagoniatik, gazte bana ere baditugu. Gure helburuak bete ditugu, beraz, zazpi probintzietatik ordezkari zara baitugu, eta baita zortzigarrenetik ere.

Era askotariko ekimenak prestatu dituzue gazteentzat ibilbidean zehar.

Aipatu moduan, Euskarabenturak helburu desberdinak ditu. Euskara du oinarrian, euskararen erabilera sustatzea gazteen artean. Horretaz gain, beraien artean sare bat sortzea, edota gure kultura eta historia ezagutzea. Azken honi lotuta, Unescok Euskal Herrian gizateriaren ondare izendatuak dituenak bisitatu dituzte gazteek ibilbidean zehar. Gainera, bidelagun ugari

izango ditugu arte eszenikoetatik, euskalgintzatik, musikatik, kirolatik...

Egiteko berezi bat ere badute parte hartzaileek.

Azken aurreko eguneko gauera-ko emanaldi berezi bat prestatuko dute guztiek. Taldea zatitu ditugu, eta bidean zehar sormen proiektu bat prestatzea da asmoa. Horregatik, interesgarria iruditzen zitzaigun disziplina desberdinak lantzea. Inprobisazioa, eszenografia, koreografia, ahozko adierazpena eta hitza ari dira lantzen, Odei Barroso, Miren Amuriza, Kattalin eta Piter Ansorena, Ximun Fusch, Myriam Perez edota Ander Lipusek eskainitako tailerren bitartez.

Sormen tailerrez gain, hitzaldi interesgarriez ere ari dira gozatzen.

Bai. Dauden lurraldearen arabera hitzaldi desberdinak ere izango dituzte bertako errealitate soziolinguistikoz. Nafarroa Beherean Xan Aire, Nafarroan Koldo Colomo, Beñat Garaio eta Ane Pedruzo Araban, Kike Amonarriz Gipuzkoan, Jone Goirigoizarrri eta Txerra Rodrighez Bizkaian eta Eneko Gorri Lapurdin ariko dira.



Ostiralean Bibalabirjen jaien barruan mozorro festa izan zen. Txupinazoa Mari Tere Munduate eta Sagrario Aranburu dendariak bota zuten eta Castellers de Vilafranca taldeak ikuskizuna eskaini zuen. I.T./A.I.

Isildu da txintxarria

Gauerdian eman diete amaiera Alegiako Karmen festei txintxarria errez. Azken kartutxoa erretzeraino aprobetxatu dute alegiarrek azken egunotako jai egitaraua.

Erredakzioa Alegia

Aurretik Bibalabirjen jaiak hasita bazeuden ere, ostiral arratsaldean lehertu zen festa Alegiako plazan, Mari Tere Munduate eta Sagrario Aranburu herriko beti-

ko dendariak botatako suziriarekin. Ordu berean, ikusmina sortu zuen Vilafranca del Penedes herriko castellers-en erakustaldiak. Giza-dorre erraldoia osatu zuten plazan.

Larunbatean, besteak beste,

sagardo dastaketa eta goitibehera jaitsiera egin zituzten eta herriko txikienek apar festaz gozatzeko aukera izan zuten eskolaren atzealdean.

Beste une hunkigarria, igande eguerdian bizi izan zuten alegia-

rrek. Txistularien alardea Txintxarri txiki abesbatza, Txintxarri abesbatza eta Sutarri dantza taldearen partaidetzarekin plazan emanaldia burutu zuten. Tarte-an herriko txistulariei, Elena Alustizari, Izaskun Lopetegiri eta Rikardo Intxaustiri eskertza egin zien Alegiako Udalak.

Igande arratsaldean, besteak beste, XIII. Txintxarri Saria jokatu zen eta Gipuzkoako Harri Txi-

kien Txapelketan Aimar Irigoien geratu zen txapeldun.

Atzo, Karmen egunean, 3x3 Saskibaloia Txapelketa izan zen goizean eta erretirodunei hamai-ketakoa eskaini zitzaizen. Umeek bazkari herrikoia egin zuten plazan eta ondoren, play-back saioa. Iluntzean, zahagiardoa egin eta erromeri doinuekin eman zieten amaiera aurtengo Alegiako festei.



Goian larunbatean izan ziren goitibehera jaitsiera eta apar festa. Igandean Alegiako Udalak eskertza egin zien herriko txistulariei, herrian egindako ekarpenagatik. R.C./J.M./I.S.

Historiaurreko ustezko lehen hiri planoa aurkitu dute Basagainen

Burdin Aroko herrixkan indusketak egin dira 25 urteotan, Foru Aldundiak eta Anoetako Udalak lagunduta; udalak salatu du inork ez diola azken aurkikuntzaren berri eman.

Erredakzioa Anoeta

Historiaurreko Euskal Herriko lehen hiri planoa izan daitekeen aurkitu dute Anoetako Basagain herrixkan. Iazko indusketetan aurkitu zuten harlauza. 36,5 eta 29,5 zentimetroko neurriak ditu luze-zabalean, eta 3,5 eta 4 zentimetro arteko lodiera. Harriaren erdian kale edo pasabide bat ikusten dela diote Xabier Peñalver arkeologoak eta bere taldeak eta alboetan etxebizitzak ikusi ahal direla, bata bestearen jarraian.

«Basagaingo harrietan egindako trazadura linealek erakusten dute bertako biztanleek konplexutasun eta abstrakzio maila handia zutela, eta agertzen diren mezuek, oraingoz argi eta garbi itzuli ezin badira ere, interes handiko mundu bat iragartzen dute», esan du aurkezpenean Peñalverrek berak. Aurkikuntzen berri emateko agerraldian izan da Denis Itxaso Kultura diputatua. «Indusketa lanei esker, handitzen joan da giza egonleku ezagunen multzoa eta horien gaineko ezagutza. Balio du, besteak beste, kontrastatzeko erro-matarrek eman nahi izan zuten ideia, jende basati eta garatu ga-bearena», esan du.

Orain arteko indusketetan «ebakidura zuzenak» dituzten harlauza zati ugari aurkitu izan dituztela esan dute aurkezpenean. «Dekoratutako estela batzuk ere baditugu, eremu gotortuaren sarrera izan zitekeen lekuan ia



Harlauzaren argazki bat eman du argitara Aranzadi zientzia elkarteak. ATARIA

lerrokatuta aurkitu direnak. Estela horietako batzuk dituzten erretikuluen irudikapena edo bestelako trazuak, kasu hauetan, esku hutsez eginak daude», esan du arkeologoak. Aurkikuntzen artean, ordea, orain aurkeztu duten harlauzak berebiziko garrantzia du. «Estela horiez gain, nabarmentzekoa da, bere konplexutasunagatik, pusketa txiki bat, non segidako faseetan egindako lerro mordoak gurutzatzen diren modu ordenatuan. Kasu honean, trazu horiek euskarri zuzen batean bermatuta egin dira», esan du Itxasok. Oraingoz, ez dakite zer helburu zuten estela horiek herrixkaren leku horretan, baina, badirudi egileek konplexutasun mental handia zutela.

Aurkikuntza hareharri triasikoko harlauza batean aurkitu dute. Harlauzaren aldeetako bat

guztiz grabatuta dago, eta azalera hori bi zati berdintsutan banatuta dago bi lerro paraleloen bidez, piezaren luzeraren noranzkoan. Alde banatan banda errektangularrak daude marraztuta, batzuetan zerrenden bidez bereizita daudenak. Banda horietan, edo ondo zehaztutako espazio horietan, noranzko ezberdinetan egindako zeharkako grabatu zuzenak daude, eta espazio horietako batzuk X batez markatuta daude bereziki.

Konparazio lan ugari egin ondoren, Peñalverrek interpretazio hipotesi bat aurkeztu du aldaeraren batekin. «Uste dugu harlauza horretan irudikatzen dena Basagain herrixkaren zati baten oinplanoa dela; ardatza edo kale nagusia alderik alde zehaztuta dago, eta alde banatan etxebizitzak izan daitezkeenak irudika-

tuta daude, beren artean ondo bereizita. Seinaleek, eta (X) marka batzuek, azpimarratzen dute irudikapenaren zati horien indibidualizazioa». Trazatu horrek, baldin eta erdiko kale baten alde banatan lerrokatutako etxeak dituen hiri-plano bati badagokio, antzekotasunak dauzka, besteak beste, Guardiako La Hoya eta Nafarroako Cortesko herrixketan jasotako hiri egiturekin, eta horrek indartu du lehen hiri planoaren hipotesia.

Beste hipotesi bat ere planteatu dute, hala ere; lursail berezien irudikapena izatea, non marka desberdinen bidez adierazita dauden jabetzak, labore motak edo bestelako alderdi batzuk. Herrixkaren alderdiren baten irudikapena izango balitz, garai hartako kasu bakarra izango litzateke orain arte.

UDALAREN HARRIDURA

Bigarren Burdin Aroko giza egonleku bat da Basagain, aroa aldatu aurreko azken mendetan leku horretan dokumentatuta dagoena; alabaina, berriki egindako aurkikuntza batzuek luzatu egiten dute egonleku horretako bizitza gure aroaren lehenengo uneetaraino. 25 urte dira Xabier Peñalver eta Eloisa Uribarri arkeologoek indusketa lanak egiten dituztela bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Anoetako Udalak babestuta.

Ondarea zaintzeko eta babes-teko Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza bat baliatuta, iaz

57.000 euroko inbertsioa egin zuen Anoetako Udalak, herrixkaren eremuaren inguruko hamar metroko perimetroko lurak erosi, egokitu eta informazio panelak jarri. Azken urteetan, erakundeek arteko lankidetzaren eman den arren, Pello Estanga alkateak ez du horrelakorik atzeman azkeneko aurkikuntzaren harira: «Ustekabea eta sorpre-saz, prentsaren bitartez jakin dugu albistearen berri. Faltan botatzen duguna da Anoetako Udala jakinaren gainean jartzea eta kontuan hartzea albiste hau ematerako garaian».

BASAGAIN AITZINDARI

Herrixkako eremu ezberdinetan berreskuratutako material ugariaren artean, nabarmentzekoak dira burdinaren metalurgia jarduerarekin zerikusia dutenak; hala, etxebizitzak, nekazaritzarako lanabesak, armak eta apaingarriak egiteko erabilitako pieza metalikoak aurkitu dira, baita zepa ugari ere, egiten zuten burdin lanketaren berri ematen dutenak.

Basagain altueran gotortutako herrixketako bat da eta erromatarrak iristean erabateko aldaketa eman zen. Duela 25 urte, Burdin Aroko kastro bakarra ezagutzen zen, Intxurrekoa, Tolosa eta Albiztur artean. Gerora aurkitu zituzten, besteak beste, Buruntzako Andoain, Murukoa Eskoriatza eta Aretxabaleta artean, Morukoa Elgoibarren eta Murumendikoa Beasainen.

VILLABONA

UZTAILAREN
19tik - 22ra

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA

VILLABONAKO UDALA

GARAGARDO

22

FERIA DE LA CERVEZA

ORDUTEGIA:
18.00 etatik
1:00 etara
Txermineko ikastolan



XIII. Txintxarri Saria, Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa, igandean jokatu zen Alegiako kiroldegian bost harri-jasotzailereren artean. IRATI SAIZAR

Aimar Irigoienek irabazi du Txintxarri Saria

Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketarako baliagarria zen lehiaren errezildarrak ia 800 kiloko aldea atera zion bigarren sailkatuari

Asier Imaz Alegia

Aurten ere ez da ezustekorik izan Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketan. Iaz bezala, Aimar Irigoienek jantzi du Alegian txapela. 2007an jarri zuen errekorra, ordea, ez zuen hausterik lortu errezildarrak. Hautsi, igandean,

bolarekin hautsi zuen txapelketa Irigoienek, bost jasoaldiko tartea lortuta.

XIII. Txintxarri Saria eguraldiagatik pilotalekura eramantzen. Beste aldaketa harri-jasotzaile baten falta izan zen. Mikel Lopetegi *Urria* ez zen lehiari ari. Irigoien estu hartzeko modu-

ko harri-jasotzailea da *Urria*, baina gerrietako mina medio, iazko txapeldunordeak ez zuen Gipuzkoako Txapelketan parte hartu.

Aurten, bigarren postua Imanol Albisu *Goikoetxerentzat* izan zen. Binakako harri-jasotzaile txapelketan maila bikaina erakutsi zuen *Goikoetxek*, *Peñare-*

kin batera. Orduan erakutsia kasualitatea ez zela izan berretsi zuen Alegian. Lehen bi harriekin hiru minutuko lana egin ondoren, Irigoien oso gertu izan zuen *Goikoetxek*. Hain justu, hirugarren, bere bikotea izan zen, Xabier Peñagarikano *Peña*. Aizarnazabalgo harri-jasotzailea

SAILKAPENAK

125 kiloko kopa

'Izeta IV'	28 jasoaldi
Xabat Olaizola	18 jasoaldi
Aimar Irigoien	34 jasoaldi
'Peña'	30 jasoaldi
'Goikoetxe'	33 jasoaldi

112,5 kiloko kubikoa

'Izeta IV'	19 jasoaldi
Xabat Olaizola	14 jasoaldi
Aimar Irigoien	21 jasoaldi
'Peña'	18 jasoaldi
'Goikoetxe'	20 jasoaldi

100 kiloko bola

'Izeta IV'	22 jasoaldi
Xabat Olaizola	18 jasoaldi
Aimar Irigoien	28 jasoaldi
'Peña'	25 jasoaldi
'Goikoetxe'	23 jasoaldi

Azken sailkapena

1. Aimar Irigoien	9.412,5 kilo
2. 'Goikoetxe'	8.675 kilo
3. 'Peña'	8.275 kilo
4. 'Izeta IV'	7.837,5 kilo
5. Xabat Olaizola	5.625 kilo

duela hiru urte hasi zen harria jasotzen. Planta bikaineko kirolaria da *Peña*, eta zeresana emango duela erakusten du joaten den leku guztietan. Baliarraingo festetan bertan izango da, Ibiur harri baldarrarekin egingo dute txapelketan.

Laugarren *Izeta IV*.a geratu zen, eta bosgarren Olaizola. Txapelketa hasi aurretik, Karmele Gisaslak eta Idoia Etxeberriak erakustaldia eskaini zuten. Azken honek, txapelketak utziko dituela eta, agur berezia eskaini zien guztiei.

Alatzne Etxaburuaren azken txapela

Euskal Herriko Segia Txapelketaren bigarren eta azken jardunaldia jokatu da; Alaitz Imaz bigarren geratu da

A. Imaz

Alatzne Etxaburuak agur esan die herri kirolei. Euskal Herriko Segia Txapelketa irabazi ondoren iritsi da agurra. Zizurkilgo kirolariaren ibilbide oparoa igandean amaitu zen, Kortazubín. Euskal Herriko Txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu zen Bizkaian. Lehenengoa Zizurkilén izan zen. Bietan Alatzne Etxaburu nagusitu da. Alaitz Imaz hernialdetarrak, ordea, ez dizkio gauzak erraz jarri.

Ohiko eran jokaturako segia txapelketan Etxaburuak 1.143 kilo belar moztu ditu, bi jardunaldiak kontuan hartuta. Alaitz Imaz izan da bigarrena. Segan oso fin ibiltzen dela erakutsi du beste behin ere hernialdetarrak. 1.073 kilo pilatu ondoren, 70 kiloko aldea bakarrik atera dio Etxaburuak. Bi jardunalditako txapelketa izan dela kontuan hartuta, oso tarte txikia. Hirugarren eta azken sailkatua Eli Txertudi bizkaitarra izan da. 626,5 kilo moztuta.



Alatzne Etxaburu Zizurkilén. I.S.



EGURALDIAREKIN EZIN

Ehunmilak eta G2H probak bertan behera uztea erabaki zuen antolakuntzak asteburuan, eguraldiagatik. Eskualdea zeharkatzen dute bi probek, eta antolatzaileen esanetan «Aralarrera igotzea desastrea izango litzateke, eta lehentasuna guztien segurtasuna bermatzea izan da». 3.000 pertsona (boluntarioak eta lasterkariak) probatik atera zituzten erabakiagatik. ATARIA

Estebez Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun

Tolosaldeko Gipuzkoa Ogi Berri taldeko txirrindulariek emaitza bikainak lortu dituzte Tolosako V. Sari Nagusian

Asier Imaz Tolosa

Emakumeen Tolosako V. Sari Nagusia jokatu zen larunbatean eskualdeko errepideetan. Irteera eta helmuga Tolosako San Frantzisko pasealekuan jarri zituzten. Kadeteak, jubenilak, 23 urtez azpikoak eta eliteak aritu ziren lehian. Tolosako sariaz gain, Gipuzkoako Txapelketa zegoen jokoan. Kadeteen mailan baita Euskadikoa ere. Tolosako Gipuzkoa Ogi Berri taldeak emaitza bikainak lortu zituen.

Kadete mailan, esprint bizi baten ondoren Garazi Estebezek bigarren postuan amaitu zuen lasterketa, baina Euskaldun Torneoako lidertza mantentzeaz gain, Euskadiko eta Gipuzkoako txapeldun bilakatu zen.

Jubenil mailan ere lasterketa esprint estu baten ondoren era-



Tolosako Sari Nagusiko irabazleak Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldunekin. R.C.

baki zen. Amaia Imaz izan zen garaile eta honekin batera, baita Gipuzkoako txapeldun ere. Tarte helmuguen saria ere Gipuzkoa Ogi Berriko Arantxa Garikanok eskuratu zuen.

Elite mailan, lasterketa paregabea egin zuen Eukene Larrartek. Lehenengo bakarka ihes egi-

nik eta ondoren beste bi txirrindulariarekin batera. Amaieran Gipuzkoako txapeldun geratu zen 23 urtez azpikoen mailan, tarte helmuguen saria ere jaso. Nagusien lasterketa Belen Lopezek irabazi zuen, Mari Martins eta Mireia Nuñoren aurretik helmugaratuz.

Miren Larrarte txapeldunorde San Ferminetan

Bidania-Goiatzeko pilotariak 22-12 galdu du binakako txapelketa

Erredakzioa Bidania-Goiatz

Maite Ruiz de Larramendi eta Olatz Arrizabalaga geratu dira txapeldun Emakume Master Cup San Fermin Txapelketako finalean, Iruñeko Labriten, Miren Larrarte eta Ituraini 22 eta 12 irabazi eta gero.

700 pilotazale bildu ziren larunbatean Iruñeko frontoian San Fermin torneoaren finala jarraitzeko. Aurten, lehen aldiz jokatu dute emakumeek txapelketa Iruñeko jaien barruan.

Miren Larrartek Naroa Iturain iruindarrarekin osatu du bikotea, eta aurrez jokaturako bi kanporaketak irabazita iritsi ziren larunbateko finalera.

Azken partidari, ordea, Eulato Maite Ruiz de Larramendi eta

Olatz Arrizabalaga gernikarra nagusitu zitzaizkien. 22 eta 12ko emaitza izan zuen finalak, baina markagailuak erakusten ez duen bezala, finala benetan gogorra eta polita izan zen. Tanto ederrak bi aldeetan egon ziren, baina batez ere Miren Larrarteren ahalegina azpimarratu behar da.

Eskualdeko presentzia bikoitza izan zen jaialdian. Hirugarren eta laugarren postuak jokatze partidan, Maite Tolosa amezketarrak hartu baitzuen parte, Andrea Aldaregiarekin batera. Bikote honek ere ez du zortetik izan eta San Fermin txapelketaren laugarren postuarekin konformatu behar izan dute, 18 eta 8ko emaitzarekin gailendu baitziren, Arrate Bergara eta Naroa Elizalde.



SANTAMAÑA KIROLAREKIN

Aitor Regillagak eta Lourdes Colomok irabazi zuten igandean XVIII. Santamañako Igoera. 85 korrikalarik burutu zuten 7 kilometroko ibilbidea. Horietatik 25 bertakoak ziren, asteasuarrak. Horrez gain, auzoko jaietan lehen aldiz Orientazio Proba jokatu zen. Larunbatean izan zen eta 21 parte hartzaile izan ziren. I.S./J.M.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan

16:00ak arte hartzen ditugu



Bixenta Alustiza Lekuona

(Antonio Igarzabalen alarguna)

Herenegun hil zen 93 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bizitza honen legea da hau,
ta onartu ezean akabo,
gure amonak, gure Bixentak
agurtu gaitu zeharo.

Zure oroitzak izango degu
hemen behean luzaro,
gaurtik aurrera zeruak dauka
beste izar bat gehiago.

Zure bilobak eta birlobak

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR asteartea arratsaldeko SEIETAN

Andre Mari Jasokundearen parroki elizan, gorpua bertan dela, egingo den hileta elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

Helbidea: Aranburu baserria
Oharra: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da.

GABIRIAN, 2018ko uztaillaren 17an

